

Lau jaiotzatik hirutan amak 30 urtetik gora ditu

Jaiotakoen erdia baino gehiago lehenengo seme-alabak izan dira.

EUSTATEk egindako Jaiotzen Estatistikako 2004ko lehen hiruhilekoko datuetan, 4.554 jaio jaso ziren, hots, iazko aldi berean izandakoen antzeko kopurua. Lurraldeka, Araban 636 ume jaio ziren, %7ko hazkundearekin; Bizkaian 2.350 jaiotzarekin, hazkundearen ehunekoa %1ean kokatu zen. Gipuzkoan, berriz, %3 jaitsi zen, 1.568 jaiotzarekin.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2004ko lehen hiruhilekoan, erdiak baino gehiago, 2.562 ume, lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.713 (%37,6) aurretik beste bat zegoen familietara iritsi ziren; eta hirugarren eta ondorengo seme-alabak %6,1era iritsi ziren. Bizkaian (%42,8), bigarren eta ondorengo seme-alaben kopurua Euskal AEko batez bestekoa (%43,7) baino txikiagoa izan zen, eta hori herrialde historiko horretan baino ez zen gertatu.

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, ikusiko dugu 30-34 urteko amen taldea oraindik ere nagusi dela argi eta garbi, haien artean izan baitziren erditzeen ia erdiak. Talde horren ondotik, hurrengo goragoko taldea kokatu zen, hau da, 35-39 urte artekoa (%26,8); 25-29ko taldea beherago geratu zen, erditzeen %18,1 ekarri baitzuen. Muturreko adinak dituzten taldeetan, 25 urtez behera amatu zirenak %5,5 izan ziren, eta 40 urtez gorakoen taldeak, berriz, jaiotzen %3,4 besterik ez zuen ekarri.

Ama ezkongabe gehiago


Ezkontzaz kanpo jaiok guztizkoaren %20,3 hartu zuten, eta puntu erdi igo ziren 2003ko lehenengo hiruhilekoaren aldean. Bizkaia (%21,1) izan zen Euskal AEko kopuru orokorra baino handiagoa izan zuen lurralde bakarra. Talde horren erditze-adina umeak eduki zituzten amen multzo osoarena baino txikiagoa izan zen, 25 urtetik beherakoak baitziren ama ezkongabeen %17,4.

1. Taula: Bizirik jaioak Euskal AEn. Alderatze-taula

	2004ko 1. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2003ko 4. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2003ko 1. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.554	100,0	4.819	100,0	4.538	100,0
Araba	636	14,0	659	13,7	592	13,0
Bizkaia	2.350	51,6	2.465	51,2	2.325	51,2
Gipuzkoa	1.568	34,4	1.695	35,2	1.621	35,7
Amaren adinaren arabera						
< 25 urte	252	5,5	283	5,9	254	5,6
25 - 29 urte	826	18,1	901	18,7	912	20,1
30 - 34 urte	2.101	46,1	2.191	45,5	2.055	45,3
35 - 39 urte	1.219	26,8	1.282	26,6	1.166	25,7
>= 40 urte	156	3,4	162	3,4	151	3,3
Jaiotza-hurrenkera						
Lehenengoa	2.562	56,3	2.857	59,3	2.629	57,9
Bigarrena	1.713	37,6	1.650	34,2	1.680	37,0
Hirugarrena edo gehiago	279	6,1	312	6,5	229	5,0

Iturria: EUSTAT

1. grafikoa: Jaiotzen hilez hileko mugimendua



Iturria: EUSTAT

oin. 100 = b. b.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martin Gonzalez Hernandez

Tlf:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es